



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko urriaren 30a

23. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Nafarroako Gobernuaren jarduketei buruzkoa, lehen ehun egunetan gobernu-programa bete-tezari dagokionez. Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da talentua itzularazteko politika bat jar dezan abian, beren lanbidea Nafarroatik kanpo garatzera behartuta suertatu diren gazteentzat. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza handiagoa eman dezan nekazari gazteak kokatzeko. Luis Casado Oliver jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehiaketara dei dezan Erriberagoiena, Erriberabarrena eta Iruña-Soriako hiriarteko garraiorako emakida berriak esleitzea. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak irmoki arbuiatzen ditu erakunde militarrek eta segurtasun indarrek hezkuntza arloan eragina izateko abian jarritako ekimenak. EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autismoaren diagnosirako eta esku-hartze terapeutiko goiztiarrerako plan bat presta dezan eta autismorako terapiak finantza ditzan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sei hilabeteko epean onets dezan 2016-2019 urteetarako Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa. M.^a Isabel García Malo andreak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erraztu dezan urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsona gaixoek tratamendu medikoa atxikitzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek agindutakoa izanik, finantzaketa publikoa duenean. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babes eta elkartasuna adierazten baitizkie Elizondon egin zen Nafarroa Oinezan sexu-eraso bat salatu zuen adingabeari eta haren familiari. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

—Adierazpena instuzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna erakusten baitie azken uholdeek kaltetutako errefuxiatu sahararrei. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Polizien Legearen erregelamendua prestatzeari eta haren aplikazioaren kostuari buruzkoa. Sergio Sayas López jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, kontsultetarako eta proba diagnostikoetarako itxaronzerrenden ikusgailua abian jartzeari buruzkoa. Sergio Sayas López jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, ikerketa biosanitario publikoari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Bitartekotza Hipotekariorako Bulegoari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzeari buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (16. or.).
- Galdera, 2015eko hirugarren hiruhilekoan Nafarroan langabezia igo izanaren arrazoiei buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Zilbetin magnesita erauzteko proiektua deuseztatzen duen Nafarroako Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren aurka errekurtsioa jartzeari uko egitearen gainekoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, 14/2015 Foru Legea garatzeko planaren prestatetari buruzkoa. Ana San Martín Aniz andreak egin du (19. or.).
- Galdera, NPBaren aurrerakinaren ordainketa atzeratzeari buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (19. or.).
- Galdera, indarkeria kasuen arretarako diziplinarteko talde integral bat Nafarroaren Iparralderako eta Iruñerriko kontratatzeari buruzkoa. Ana San Martín Aniz andreak egin du (20. or.).
- Galdera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen ebaluazioa eta promozioa arautzen dituzten foru aginduei buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, “Valle del Ebro” BHIRako eta Tuterako ETI ikastetxe integratu politeknikorako sarbideei buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Tuterako “Valle del Ebro” BHIko irakasle bati eskola ordu kopuruaren handitzea ukatzeari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Gazte Bermearen Funtseko laguntzei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren neurriei buruzkoa, ETaren biktimen memoria erreparatu, haien duintasuna berreskuratu eta justizia egitekoak. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (23. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitalegunean endoskopiatarako gelak irekitzeari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (24. or.).
- Galdera, Ogasun Ministerioaren ordainketari buruzkoa, C hepatitisaren aurkako tratamendurakoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (24. or.).
- Galdera, Castejongo “Dos de Mayo” ikastetxe publikoaren azpiegitura berriak egiteko aurreikusitako epeei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, Nafarroako enpresen lehiakortasunari buruzkoa, sozietateen zerga dela-eta. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (25. or.).
- Galdera, autismoaren arloko esku-hartze terapeutiko handiagoaren beharrari buruzkoa, haurrei eta nerabeiei dagokienez. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (26. or.).
- Galdera, erradioterapiako tratamendua jasotzen duten Erriberako gaixoen ordutegi-banaketari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (26. or.).
- Galdera, Osasun Mentaleko Erizaintzako espezialitateari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (27. or.).
- Galdera, Nafarroan jarduten duten segurtasun indar ezberdinek azken 20 urteotan eginiko atxiloketei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (28. or.).

- Galdera, Euroerregioan sartzearen bidez Nafarroako Foru Komunitatearen, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Akitaniaren arteko lankidetzaren berreskuratzeari buruzkoa. Maiorga Ramirez Erro jaunak egin du (28. or.).
- Galdera, Garesko Eskola Publikoko Lehen Hezkuntzako 5. mailan banatu den gaztelaniazko Zientzia Sozialen liburuari buruzkoa. Ahozko galdera bihurtzea.

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroan Politika Sozialak zertan diren eta horiek hobetzen laguntzeko neurriak aztertzeko eztabaida antolatze arauak (30. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Gobernuaren jarduketei buruzkoa, lehen ehun egunetan gobernu-programa betetzeari dagokionez.

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuaren jarduketei buruzkoa, lehen ehun egunetan gobernu-programa betetzeari dagokionez.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko eledun Ana Beltrán Villalba andrea

ak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Heldu den urriaren 30ean 100 egun beteko dira Nafarroako Gobernu berriak karguaren jabetza hartu zuenetik. Hori dela-eta, gure ustez egokia da oro har nahiz gobernu-programari dagokionez egindako jarduketan jarraipena egitea.

Jabelduraren testua:

Nafarroako Gobernuko lehendakariari zuzendutako jabeldura, bere gobernuaren lehendabiziko ehun egunetan gobernu-programa betetzeko egindako jarduketak aurkez ditzan.

Jabeldura hau urriaren 30aren osteko lehen osoko bilkuran eztabaidatzea eskatzen dugu.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Eleduna: Ana Beltrán Villalba andrea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da talentua itzularazteko politika bat jar dezan abian, beren lanbidea Nafarroatik kanpo garatzera behartuta suertatu diren gazteentzat.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita talentua itzularazteko politika bat jar dezan abian, beren lanbidea Nafarroatik kanpo garatzera behartuta suertatu diren gazteentzat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldea, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Foru Komunitateak baliabide ekonomiko, giza baliabide eta baliabide material ugari

inbertitu ditu hezkuntzan maila guztietan, halako moduan non bere herritarrei erraztu egin baitie kalitatezko prestakuntzarako sarbidea, hiru urteko adinetik aurrera.

Hala eta guztiz ere, azken urteotan, gazte hprestatu orietako askok gure erkidegoa eta gure herrialdea utzi behar izan dituzte aukerarik ezagatik. Horietako batzuk gure herrialdea 2012, 2013 eta 2014an utzi zuten 525.358 emigranteen artean daude –Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera–, eta beste batzuek Espainiako beste erkidego batzuk hautatu zituzten beren lanbidean aritzeko eta beren gaitasunak gauzatzeko; hartara, beste leku batzuetan sortzen dute balioa, eta Nafarroa kondenatuta gertatzen da bertan prestatutako talentua alferrik galtzera.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du talentua itzularazteko politika bat jar dezan abian, eta hobariak sor ditzan, Nafarroan instalatuta dauden enpresek prestakuntza eta titulazioa Nafarroako Foru Komunitatean lortu duten gazteak kontrata ditzaten, beren lurraldea utzi behar izan dutenak eta beren lanbide karrera Nafarroatik kanpo garatzen ari direnak.

Iruñean, 2015eko urriaren 21ean

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza handiagoa eman dezan nekazari gazteak kokatzeko.

LUIS CASADO OLIVER JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Casado Oliver jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita laguntza handiagoa eman dezan nekazari gazteak kokatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko kide Luis Casado Oliverrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkeztu du, nekazari gazteak instalatzearen aldeko apustua egitekoa, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroa da Espainia osoan langabezia-mailarik txikiena daukan autonomia erkidegoa. Nafar guztien ahaleginari esker lortu da hori, bai eta enplegu-politika aktiboetan inplikaturako departamentuetatik Nafarroako Gobernuak egindako plangintzari eta jarraipenari ere.

Nafarroa ez da ulertzen ahal bere herriak, bere landa-eremuak eta bere lurraldearen garapen orekaturik gabe. Horretarako, garatu egin behar ditugu landa eremuei enplegu eta jarduera ekonomikoko aukerak ekarriko dizkieten politikak, jendeak leku horietan bizitzen jarraitu ahal izan dezan.

Gure herriei etorkizun bat eta bertako biztanleei lan-egonkortasuna bermatzeko modurik onena da nekazaritzako elikagaien sektorea bultzatzea –Nafarroaren ardatz estrategiko bat–, eta gure helburu nagusietako bat izan behar da bere lehiakortasuna hobetzea.

Belaunaldi-erreleboa egotearen garrantziaz jabetuta –izan ere, funtsezkoa da haren oraina finkatzeko eta, batez ere, etorkizuna jorratzeko–, areagotu egin behar dugu gazteak lehen sektorean instalatzeko laguntza.

Hortaz, honako hau proposatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ehuneko 50 areagotu ditzan nekazari gazteak instalatzeko laguntzak, Landa Garapeneko aurreko programarekin alderatuta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du laguntza horiek erants dakizkien NPE-Nekazaritza Politika Erkidearen erreforman sartzea lortu den gazteentzako zuzeneko laguntza berriei.

Tuteran, 2015eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Luis Casado Oliver

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehiaketara dei dezan Erriberagoiena, Erriberabarrena eta Iruña-Soriako hiriarteko garraiorako emakida berriak esleitzea.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehiaketara dei dezan Erriberagoiena, Erriberabarrena eta Iruña-Soriako hiriarteko garraiorako emakida berriak esleitzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Iragan urriaren 20an, Garapen Ekonomikorako lehendakariordeak, parlamentari honek eskatuta,

gutxi gorabeherako egutegi bat azaldu zuen, Nafarroako hiriarteko garraio-emakida berrien lehiaketa egitekoa.

Egutegi horren arabera, asko atzeratzen da Erriberagoienerako eta Erriberabarrenerako aurreikusitako emakida berriak lehiaketara ateratzea, antza denez, besteak beste, ustezko finantza-premiak estaltzeko aurrekontu-zailtasunak daudelako.

Plangintza berri bat egitea komeni dela-eta arlo horretan jada pilatutako atzerapena ikusita, horien tramitazio batzuk aurreratuta daudela ikusita, eta kontuan hartuta Erriberan hiriarteko garraioak egoera desorekatua bizi duela, honako mozio hau Osoko Bilkuran onartu eta izapidetzea eskatzen da:

1. Gobernua premiatzen da lehiaketara atera ditzan, 2016ko lehen seihilekoa bukatu aitzin, Erriberagoieneko, Erriberabarreneko eta Iruñetik Soriarako hiriarteko garraio-emakida berriak.

2. Gobernua premiatzen da ahalegin berezia egin dezan Garraio Zerbitzua giza baliabidez eta baliabide ekonomikoz zuzkitzeko, halako moduan non gainontzeko emakiden plangintza, parte-hartze publikoa, izapidetzea eta lehiaketa 2017an egin ahal izanen baitira.

Iruñean, 2015eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak irmoki arbuiatzen ditu erakunde militarrek eta segurtasun indarrek hezkuntza arloan eragina izateko abian jarritako ekimenak.

EH BILDU NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak irmoki arbuiatzen baititu erakunde militarrek eta segurtasun indarrek hezkuntza arloan eragina izateko abian jarritako ekimenak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatutakoari jarraikiz, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Aurreko egunotan jakin dugu Aizoango kuartelean egoitza duen "América 66" Erregimenduak hainbat ikastetxetako zuzendariei zein guraso elkar-teei gutun bat helarazi diela. Bertan, hilabetearen behin egiten duten "parada militar"ean ikasleek parte har dezaten gonbitea egin zaie. Ekitaldia zertan datzan ere azaltzen dute gutunean: banderaren jasoketa, "Espainiaren alde hildakoei omenaldia" eta desfilea. Eta gonbit hau, ejerzitoaren eta gizartearen arteko harremana "estutzeko" helburuz egiten dutela baieztatzen dute, gizartean ejerzitoa baita "hobekien baloratzen den instituzioetarikoa bat".

Ez da lehen aldia instituzio militar batek edo Estatuko Segurtasun Indarren batek hezkuntza arloan eragin nahi duena, ikasleengana hurbilduz. Guardia Zibilak ere "Ateak Zabaltzeko Eguna" egin ohi du ikastetxe batzuetan. Orain dela hilabete batzuk, hain zuzen, Cintruénigoko eskola batean hartutako irudiek Espainiar Estatuko hedabide guztietan oihartzun handia izan zuten. Bertan, ume txikiak ikus zitezkeen guardia zibilek utzitako armak eskutan.

Aurten ere, orain dela egun batzuk, urriaren 12aren harira, hainbat ikastetxeri egin zitzaion gonbita halako topaketa batean parte hartzeko, guardia zibil, polizia eta militarrekin. Ejerzitoaren egoitza batean egin omen zen jardunaldia, eta 250 bat haurrek parte hartu omen zuten, Carmen Alba delegatuak jakinarazi zuenez. Bertan, "anti-disturbio" materiala jarri omen zen ikasleen esku.

Bada garaia geure ikasleen artean eta ikastetxeetan balore militaristak zabaltzeari uzteko. Hezkuntza sistemak, hain zuzen, bakearen eta bizikidetzaren aldeko baloreak sustatu behar ditu. Beste herrialde batzuetan normalizat jotzen ez dena normalizat jo behar dugu Nafarroan, antza. Frantziar Estatuan, esate baterako, orain dela egun batzuk izugarritzko polemika sozial eta politikoa piztu da, hainbat adin txikiko ejerzitoak utzitako fusilak eskutan zituztela ageri diren irudiak direla eta. Baina bertan erantzuna ezberdina izan da: ejerzitoak berak jokaera hori bultzatu duten militarrek zigortuko dituela esan du, eta hezkuntza arloko ardura-dunek ere onartezinatzat jo dute gertatutakoa, horrek ez duela helburu hezitzailearik azpimarratuz.

Hau guztia dela eta, parlamentu-talde honek honako erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak irmoki errefusatu ditu instituzio militarrek eta segurtasun indarrek hezkuntza arloan eragina izateko abian jarritako ekimenak, balore militaristak ez baitatoz bat bakearen eta bizikidetzaren heziketa balioen lanketarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak bere borondatea adierazten du segurtasun indarrek eta instituzio militarrek aurrerantzean halako beste ekimenik egin ez dezaten Nafarroako ikastetxeetan eta Nafarroako ikasleekin, eta hartara, Espainiako Gobernu eta Gobernu Delegazioa premiatzen ditu behar diren neurriak jar ditzaten.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Nafarroako ikastetxeek eta Nafarroako ikasleekin halako beste ekimenik eginen ez dela berma dezaten, ikastetxeei zein Gobernu Delegazioari beharrezkoak diren instrukzioak emanez.

Iruñean, 2015eko urriaren 21ean

Eleduna: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autismoaren diagnosirako eta esku-hartze terapeutiko goiztiarrerako plan bat presta dezan eta autismorako terapiak finantza ditzan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita autismoaren diagnosirako eta esku-hartze terapeutiko goiztiarrerako plan bat presta dezan eta autismorako terapiak finantza ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autismoaren diagnosirako eta esku-hartze terapeutiko goiztiarrerako plan bat presta dezan.

Autismoaren nahasmenduak neurogarapenari eta garunaren funtzionamenduari eragiten die, eta gaixo horiei eragotzi egiten die komunikazio eta interakzio soziala; halaber, pentsamenduaren eta jokabidearen malgutasunari kalte egiten dio.

Nahasmendu horrek jatorri neurobiologikoa du, eta bizitza osoan zehar eragiten dio pertsonari;

halatan, beharrezkoa da pertsonaren beharrezko erantzun integrala ematea, laguntza banakatu, espezializatu eta ebidentzia zientifikoetan oinarritutakoa eskainiz, gaixoen bizi-kalitatea areagotzeko.

Autismoa duten haurrek esku-hartze etengabe bat behar dute, eta, une honetan, zerbitzu publikoek ez dituzte haur horiek artatzen ez modu global ez etengabe batean, hutsuneak gertatzen baitira haiei emandako laguntzan; Autismoaren Nafarroako Elkarteak betetzen ditu boluntarioki hutsune horiek.

4 urteko antzinatasuna doi-doi daukan eta 100 haur baino gehiago artatzen dituen elkarte horrek berriazko esku-hartze terapeutikoak egiten ditu psikologoekin. Areago; kasu askotan, O-NOZeko neuropediatrek haurrak bidaltzen dizkiete, osasun sistemak berak ez dauzkan tratamendu horiek egin diezazkieten.

Orobat nabarmendu beharra dago Nafarroan ez dagoela autismoaren arloan diagnostikoa edo esku-hartze terapeutikoa egiteko planik edo protokolorik.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Autismoaren diagnosirako eta esku-hartze terapeutiko goiztiarrerako plan bat presta dezan.

2. Autismoaren Nafarroako Elkarteak autismoa artatzeko egiten dituen terapiak finantza ditzan, Autismoaren Nafarroako Elkartearekin hitzarmen bat eginez, edo terapia horiek O-NOZek oso-osorik bere gain har ditzan.

Iruñean, 2015eko urriaren 22an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sei hilabeteko epean onets dezan 2016-2019 urteetarako Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa.

M.^a ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.^a Isabel García Malo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita sei hilabeteko epean onets dezan 2016-2019 urteetarako Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko kide Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea Nafarroako Parlamentuaren % 70eko babesarekin onetsi zen, eta ez zuen kontrako botorik izan. Foru lege horren 26.1 artikuluan, hau esaten da: "Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoak gizarte zerbitzuen politikaren helburuak erdiesteko behar diren neurriak, baliabideak eta ekintzak antolatuko ditu, foru lege honetan ezarritakoarekin bat. Lau urteko indarraldia izanen du". Eta 27. artikuluan, berriz, hau dio: "Plan sektorial orokorrekin gizarte zerbitzuen plan estrategikoen aurreikuspenak garatuko dituzte zenbait egoera sozialetan, populazioa ikuspegi sektorialarekin begiratuta. Zeharkako izaera eta urte anitzeko indarra izanen dute; halaber, behatokiak sortzea aurreikusitako ahalko da bertan".

Foru lege horretan ezarritakoa oinarri, Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Gobernuak proposatuta, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoa onetsi zuen aho batez. Planaren indarraldia 2008tik 2012ra bitartekoa zen, eta horren aplikazio-epea luzatu egin zen gero.

Legegintzaldia hasi eta aurrekontu berriak izanen ditugu 2016rako. Gizarte zerbitzuen plan estrategiko berri bat prestatzeko garaia dugu.

Gainera, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak berriki adierazi zigun, Parlamentuan eginiko agerraldi batean, departamentuko plangintza-teknikariak azken bi urteotan gogor lan egin dutela atariko dokumentu bat prestatzen –2013an– eta Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoaren ikuspegia eta misioa zehazten –2014an–. Gure ustez, hortaz, pilotutako ezagutza eta lan guztia aprobetxatu beharra dago, non eta ez dugun nahi lan hori denbora-galtze nahiz baliabide publikoak alferrik galtze modura har dadin. Aitzitik, guk uste dugu abiapuntu ona dela, egin beharreko gaurkotzeak eginda, gainontzeko plan sektorial guztien aurretik egin beharreko plan estrategikoa azkartasunez abiarazteko.

Hortaz, behar-beharrezkoa da lehentasunez taxutzea Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategiko hau, ahalbidetuko diguna Nafarroako Foru Komunitatearen egungo egoera soziala ezagutzea, dau den zerbitzuak eta eskaria aztertuz, hortik abiatuta ezartze aldera jarraitu beharreko ildo estrategikoak, lortu beharreko helburuak eta horiek lortzeko egin beharreko ekintzak.

Antolaketa orokor berri bat behar dugu, laguntza soziala jasotzeko eskubidea duten pertsona guztiak ekitate-irizpidez artatu ahal izatea ahalbidetuko diguna, lurralde osoan gizarte zerbitzuen sare unibertsal, berme-emaile eta kalitatezko baten harmonizazioan sakonduko duena, pertsonen oinarritzko beharrezko erantzuteko.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuari honako mozio hau aurkezten diogu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean onets dezan Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa 2016-2019 aldirako, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearekin bat eta alde aurretik egindako lan guztia kontuan hartuz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Plan Estrategikoa Parlamentu honetara igortzera onets dadin, aurreko plan estrategikoa taxutu zenean egin zen bezala.

Iruñean, 2015eko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erraztu dezan urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsona gaixoei tratamendu medikoa atxikitzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek agindutakoa izanik, finantzaketa publikoa duenean.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erraztu dezan urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsona gaixoei tratamendu medikoa atxikitzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek agindutakoa izanik, finantzaketa publikoa duenean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza-sistema bat ezar dezan, errazte aldera urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsonen tratamendu medikoa atxikitzea.

Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurriei buruzko apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege-dekretua eragin negatiboa izaten ari da, bai sistemaren estalduran, bai haren taxutze instituzionalean. Osasungastua etxeetara eta gizarte-erakundeetara desbideratzen ari da, eta bereziki zigortzen ari da kolektiborik ahulenak; esate baterako, dokumentaziorik gabeko etorkinak, gaixo kronikoak edo 26 urtetik goitiko gazte langabetuak.

Osasun-laguntzaren estaldurari dagokionez, Nafarroak horren unibertsaltasuna bermatu ahal izan zuen otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legea onestearekin, horren bidez aitortu egiten baitzaie Nafarroan bizi diren pertsonen Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun laguntza jasotzeko eskubidea.

Baina ezin izan genuen arindu farmazia-ekarpenaren eredia aldatzearen inpaktua; izan ere, Nafarroako Foru Komunitatean farmazia-prestazioak osatzeari buruzko urriaren 19ko 18/2012 Foru Legearen aurkako errekurtsoa jarri zen Konstituzio Auzitegian, eta hark bertan behera utzi zuen legearen aplikazioa.

Farmazia-koordainketako eredu berri hau zenbait urtez aplikatu ondoren, zenbait argitalpenen bidez egiaztatu ahal izan dugu –azkena, FAESSA fundazioarena– koordainketa horrek disuasio-efektu bat daukala errentarik txikiena duten pertsonentzat, eta errenta txikiko familien kasuan ekarri duela honako bi hauen artean hautatu beharra: osasun-profesional batek agindutako medikazioa hartu –eta, horrenbestez, osasunerako beharrezkoa den medikazioa hartu–, ala, lehen mailako beharrianak lehenetsi. Halatan, aginduzko tratamenduei ez eustea ekarri du.

Ezberdinkeria sozialak gertatzen dira osasun arloan, saihesgarriak eta bidegabeak. Badakigu, halaber, osasun txarrak kalte handiagoa egiten diela errenta txikiko pertsonen. Nafarroako 2014-2020 Osasun Planeko helburu orokorren artean ageri da osasun arloko ezberdinkeriak murriztea; hortaz, botere publikoen arduetako bat da ildo horretan lan egitea.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Laguntza-sistema bat ezartzera, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsona gaixoei O-NOZeko langileek agindutako eta finantziario publikoari atxikitako tratamendu medikoari euts diezaioten.

2. Laguntza horien onuradun izan daitezen Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Osasun-txartel Indibidualaren titular diren pertsona guztiak eta haien onuradunak.

3. Laguntzen zenbatekoa izan dadin finantziario publikoa duten farmazia-tratamenduak, pro-

duktu dietetikoak eta efektuak eta osagarriak direla-eta O-NOZeko langileek agindutako tratamendu medikoaren ondorioz ordaindutakoa adinakoa.

Iruñean, 2015eko urriaren 22an

Eleduna: María Chivite Navascués

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa eta elkartasuna adierazten baitizkie Elizondon egin zen Nafarroa Oinezan sexu-eraso bat salatu zuen adingabeari eta haren familiari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen du sexu-eraso bat pairatu izanari buruz iragan igandean adingabe batek egindako salaketa, eta adierazten du ezen, salatutakoa egiaztatzen baldin bada, gertakari zeharo tamalgarri eta erabat arbuigarri baten aitzinean geundekeela.

2. Nafarroako Parlamentuak babesa eta elkartasuna adierazten dizkie salaketa jarri duen adingabeari eta bere familiari, bai eta sexu-erasoen nahiz eraso matxisten biktima izan diren emakume guztiei ere.

3. Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten du, bereziki jai-giroetan zenbait mutil gaztek izandako jarrera eta jokabide matxistengatik, eta zero tolerantziako jarrera eta politika bat beharrezkoak direla adierazten du. Halatan, lan egiteko konpromisoa adierazten du, jai-ingurunea askatasun eta berdintasun ingurune gisa har dadin, eta ez emakumea laidotzen duten jarrerak onartzen direneko zigorgabetasun esparru gisa.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du emakumeen aurkako indarkeria errotik desagerrarazteko borondatea duela, eta egiaztatzen du gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasuna dela indarkeria matxistaren jatorria. Hortaz, adierazten du bere borondatea dela desberdintasun horri aurre egitea eta hartu beharreko neurriak hartzea egiazko berdintasuna sustatzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren adierazten du lehenbailehen gara dezan Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea; bereziki, prebentzioari eta hezkuntzaren nahiz curriculumaren esparruei dagokienez. Halaber, eta ildo horretan, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazko du ikasturte hau bukatu aitzin taxutu dezan hezkidetzarako, berdintasunean heztekoko eta genero indarkeriari aurrea hartzeko plan bat, hezkuntza erkidegoarekin batera eta aholkuak jasorik Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eta berdintasun politiketan eta genero indarkeriaren prebentzioan adituak diren elkarte eta profesionalengandik.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpena instuzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna erakusten baitie azken uholdeek kaltetutako errefuxiatu sahararrei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna erakusten die azken uholdeek kaltetutako errefuxiatu sahararrei.

2. Nafarroako Parlamentuak dei egiten die entitate eta erakunde publikoei, urgentziaz eta eragin-kortasunez areagotu eta gauzatu dezaten laguntza solidario eta humanitarioa uholdeek kaltetutako kanpalekuetako errefuxiatuentzat, bereziki urgentea dena Wilaya de Auserd-eko kanpalekuan.

3. Nafarroako Parlamentuak hedabideei, elkartasun-erakundeei eta gizarte zibilari gonbit egiten die ezagutaraz dezaten Mendebaldeko Saharako

errefuxiatuen kanpalekuetan bizi duten larrialdi-egoera.

4. Nafarroako Parlamentuak dei urgentea egiten die gobernuz kanpoko erakundeei, sahararren kausarekin bat egiten duten elkarteei, gizarte zibilari eta Saharako herriaren lagun guztiei, errefuxiatuekiko elkartasuneko eta laguntza humanitarioko ekimenetan parte har dezaten.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu laguntza humanitarioaren eta garapenerako lankidetzaren arloko lehentasun gisa mantentzaten sahararren errefuxiatu-kanpalekuekin zerikusia duten laguntza eta proiektuak, bai eta horiek antolatzeke lanetarako laguntza ere.”

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Polizien Legearen erregelamendua prestatzeari eta haren aplikazioaren kostuari buruzkoa.

SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkeztutako galdera, Polizien Legearen erregelamendua prestatzeari eta haren aplikazioaren kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeko Sergio Sayas Lópezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak egin al du Polizien Legea garatzeko erregelamendurik? Horren aplikazioak zenbat kostatuko duela aurreikusten du?

Iruñean, 2015eko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

Galdera, kontsultetarako eta proba diagnostikoetarako itxaronzerrenden ikusgailua abian jartzeari buruzkoa.

SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkeztutako galdera, kontsultetarako eta proba diagnostikoetarako itxaronzerrenden ikusgailua abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeko Sergio Sayas Lópezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak noizko aurreikusten du abian jartzea kontsultetarako eta proba diagnostiko osagarrietarako itxarote-zerrenden ikusgailua?

Iruñean, 2015eko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

Galdera, ikerketa biosanitario publikoari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, ikerketa biosanitario publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Osasun-ikerkuntzarako institutuak arautzen dituen 339/2004 Errege Dekretuak ezartzen du ospitaleak direla osasun-ikerkuntzarako institutuetako oinarritzko gunea. Ahal Dugu-ren ustez, Nafarroako Ospitaleguneak izan behar du, bertan artatutako gaixo-kopuruarengatik eta ikerkuntza egiten duten klinikoen kopuruarengatik –horiek izan behar dute behar dute osasun-ikerkuntzarako institutuen ardatz– IdiSNAREN erreferentziazko ospitalea. Halere, Osasunbidea-Nafarroako Osasun

Zerbitzuaren Ikerkuntzaren Sustapenerako Programak –UPNren gobernupean 2013an egin zenak– jada detektatu zuen bazirela hobetu beharreko zenbait arlo. Lan-taldeak honako hauek identifikatu zituen: a) O-NOZeko buruzagiek ez dute lehentasunezko arlotzat jo ikerkuntza; b) ikerkuntza ez da O-NOZen jardueraren berezko partetzat jotzen; c) ikerkuntza ez da aintzat hartzen lanpostua lortzeko eta barne igoerako txandetako baremoetan; d) O-NOZeko ikertzaileak sakabanatuta eta isolatuta daude, e) Osasun Departamentuaren deialdiak ez daude O-NOZen zentratuta. Azken batean, pizgarri gutxi, eta are penalizazioa ere, ikerkuntzaren beharra ikusten duten eta ikerkuntza egin nahi duten klinikoentzat.

2015 honetako udaberrian, Osasun Departamentuak auditoria bat eskatu zion Carlos III.a Institutuari, gero IdiSNAREN kreditazioa egin ahal izateko. Haren txosteneko ondorioetan, ebaluatzaileek “kreditaziorako ezinbestekoak diren baldintzei buruzko zenbait hausnarketa” egin zituzten. Honako hau ohartarazten zuten, hitzez hitz: “gomendagarria izanen litzateke Nafarroako Ospitalegunean ikerkuntzarako babesa eta ikuspegia indartzea, IdiSNAREN iraunkortasuna bermatzeko”.

Nafarroako Gobernuak ba al du borondaterik kalitatezko ikerkuntza biosanitario publiko bat bultzatzeko? Baiezkoan, zer egingen du iraunkorra izan dadin?

Iruñean, 2015eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Galdera, Bitartekotza Hipotekariorako Bulegoari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, Bitartekotza Hipotekariorako Bulegoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Nafarroako Gobernu berria eratzean, Bitartekotza Hipotekariorako Bulegoa departamentuz aldatu da. Orain, zuzenean Eskubide

Sozietateko Departamentuaren menpe dago; hain zuzen ere, Etxebizitza Zerbitzuan.

Aurreko bulegoak 917 pertsona artatu zituen iragan ekainaren erdialdera bitarte, eta 509 bitartekotza-espeditente ireki ziren horren ondorioz; horietatik, une hartan 86k jarraitzen zuten irekita, eta % 80 onik ebatzi ziren.

Harrezkero ez dakigunez ezer ere bulego berriaren jarduketei buruz, gai horri buruzko honako galdera hauek onartzea eta izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun ditzan:

- Bulego berriak dituen giza baliabideak. Lanbide-profilak.

- Aldatu zenetik bulego berrian artatutako pertsonen kopurua.

- Abiarazi diren espeditente berriak.

- Lehendik dauden espeditenteak, bai ebatzi direnak bai ebatzteke daudenak.

Iruñean, 2015eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzeari buruzkoa.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari

buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernandez de Garaialde y Lazkanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak eta Haurren eta nerabeen babes-sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak estatu mailan behartzen dute aldatzera abenduaren 3ko 125/2007 Foru Dekretuaren eta urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretuaren bidez ezarritako prozedurak, zeinen bidez garatzen baita Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea.

Arestian aipatutako legeak 10 urte darama indarrean; aukera ona da, beraz, araututako prozeduren eraginkortasunari buruzko balorazio bat egiteko eta prozedura zaluagoak eta eraginkorragoak adostu ahal izateko.

Aurreikusita al dago Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzea?

Bitartean, ba al dago urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretua aldatzeko asmorik?

Iruñean, 2015eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, 2015eko hirugarren hiruhilekoan Nafarroan langabezia igo izanaren arrazoiei buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, 2015eko hirugarren hiruhilekoan Nafarroan langabezia igo izanaren arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2015eko hirugarren hiruhilekoari buruzko biztanleria aktiboaren inkestako azken datuak ikusita, langabezia Espainian ehuneko 5,79 jaitsi da batez beste; Nafarroan, aldiz, ehuneko 9,35 igo da.

Andaluziarekin eta Ceutarekin batera, langabezia Espainiako hiru erkidego horietan bakarrik igo da hirugarren hiruhilekoan.

Datu horiek eragiten diguten kezkak garamatza Nafarroako Gobernuak lehendakariari honako hau galdetzeraz:

Aztertu al duzue datu horiek zeri zor zaizkion? Izan ere, datu horiek frogatzen dute Nafarroan ekonomiak nabarmen egin duela okerrera eta neurri serioak hartu beharra dagoela urgentziaz. Gogoan hartu al duzue zuen Gobernuak eta bere jarduketak zuzentzen dituen programa-akordioa izan daitezkeela Nafarroako enpresetan balizko inbertsioetarako ziurgabetasuna sor dezaketena?

Iruñean, 2015eko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Zilbetin magnesita erauzteko proiektua deuseztatzen duen Nafarroako Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren aurka errekurtsioa jartzeari uko egitearen gainekoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Zilbetin magnesita erauzteko proiektua deuseztatzen duen Nafarroako Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren aurka errekurtsioa jartzeari uko egitearen gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeko kide Juan Luis Sánchez de Muniáinek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Nafarroako Gobernuo eledun Ana Ollok Osoko Bilkuran ahoz erantzun ditzan:

Orain dela gutxi ezagutu dugu Nafarroako Auzitegi Nagusiak emandako epaia, zeinaren

bidez deuseztatu egin baitu Zilbetin magnesita erauzteko proiektua, Gobernuak onetsia.

Nafarroako Gobernuaren aurkako demanda jarri zutenak ordezkatzuz ageri da Nafarroako Gobernuo kontseilari bat, pertsonalki edo bere bulego profesionala izan deneko beste kide batzuen bitartez.

Iragan urriaren 21eko bilkuraren ostean Gobernuo eledun Ana Ollok egindako prentsurrekoan ezer baino lehen iragarri zuen Nafarroako Gobernuak uko egiten diola errekurtsioa jartzeko eskubideari, Gobernuaren zerbitzu juridikoen kasuko txostenik eduki gabe ere.

Horregatik guztiagatik, honako galdera hau aurkezten dugu, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zure ustez, horren jakitun izanda, zuzena al da iragartzea uko egiten zaiola epai garrantzitsu horren aurkako errekurtsioa jartzeari, Gobernuaren aholkularitza juridikoaren kasuko txostena egin arte itxaron gabe?

Iruñean, 2015eko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, 14/2015 Foru Legea garatzeko planaren prestaketari buruzkoa.

ANA SAN MARTÍN ANIZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana San Martín Aniz andreak aurkeztutako galdera, 14/2015 Foru Legea garatzeko planaren prestaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kidea den Ana San Martínek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren Kontratazio-atarian jarrita daude Emakumeen aurkako Indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legea garatzeko plana taxutzeko laguntza teknikoa kontratatzeko hautagaiak aurkezteko baldintza-orria eta epeak .

Epea bukatuta dagoenez, kasuko departamentuak zer egingen du horri dagokionez?

Iruñean, 2015eko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Ana San Martín

Galdera, NPBaren aurrerakinaren ordainketa atzeratzeari buruzkoa.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, NPBaren aurrerakinaren ordainketa atzeratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Mari Carmen Segura Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zergatik atzeratu da Nekazaritza Politika Bateatuaren aurrerakinaren ordainketa Nafarroan?

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura Moreno

Galdera, indarkeria kasuen arretarako diziplinarteko talde integral bat Nafarroaren Iparralderako eta Iruñerrirako kontratatzeari buruzkoa.

ANA SAN MARTÍN ANIZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana San Martín Aniz andreak aurkeztutako galdera, indarkeria kasuen arretarako diziplinarteko talde integral bat Nafarroaren Iparralderako eta Iruñerrirako kontratatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Ana San Martínek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion.

UPNren lehengo Gobernu atera zenetik, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak kontratatzeke dauka indarkeria kasuen arretarako diziplinarteko talde integral bat, Nafarroaren Iparralderako eta Iruñerrirako.

Zertan da gai hori une honetan?

Foru parlamentaria: Ana San Martín

Galdera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen ebaluazioa eta promozioa arautzen dituzten foru aginduei buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen ebaluazioa eta promozioa arautzen dituzten foru aginduei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2015eko uztailaren 2ko NAO-n, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak apirilaren 22ko 24/2015 eta 25/2015 foru dekretuak argitaratu zituen, bai eta Hezkuntzako kontseilariaren 46/2015 eta 47/2015 foru aginduak ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasketen curriculum Nafarroako Foru Komunitaterako ezartzeko, hurrenez hurren.

Aurreko Gobernuaren plangintza geroratzeko ekimenik hartu ez denez, honako galdera hau egi-ten dugu, idatziz erantzun dakion.

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publi-ko, pribatu eta itunduetan Derrigorrezko Bigarren

Hezkuntza eta Batxilergoa egiten duten ikasleen ebaluazioa eta promozioa arautzeko foru aginduak noiz argitaratuko dira?

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, “Valle del Ebro” BHIrako eta Tuterako ETI ikastetxe integratu politeknikorako sarbideei buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, “Valle del Ebro” BHIrako eta Tuterako ETI ikastetxe integratu politeknikorako sarbideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari Carlos Gimeno Gurpegui jau-

nak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritako-aren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Iragan urriaren 13an, ibilgailu batek 16 urteko oinezko bat harrapatu zuen Tuterako “Valle del Ebro” Bigarren Hezkuntzako Institutuko aparkalekuan, aparkatzeko eremutik zihoan oinezkoak oharkabean inbaditu zuenean zirkulazio-erreia. Ibilgailuak oinezkoa kolpatu zuen, eta jarraian handik alde egin zuen, inolako daturik eman gabe.

Hezkuntza Departamentuak aurreikusi al du inolako jarduketa prebentiborik “Valle del Ebro” Bigarren Hezkuntzako Instituturako eta Tuterako ETI ikastetxe integratu politeknikorako sarbideei dagokienez, gisa horretako gertakariak ekiditeko?

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, Hezkuntza Departamentuak Tuterako “Valle del Ebro” BHIko irakasle bati eskola ordu kopuruaren handitzea ukatzeari buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak Tuterako “Valle del Ebro” BHIko irakasle bati eskola ordu kopuruaren handitzea ukatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Tuterako “Valle del Ebro” Bigarren Hezkuntzako Institutuak Hezkuntza Departamentuari eskatu dio, hezkuntza-neurri arrunt gisa, irakasle baten eskola ordu kopurua handitzea –egun egiten dituen 16 ordu egin beharrean 20 ordu egin ditzan–, hezkuntzako berariazko ekintza bat egiteko; hizkuntza murgilketako saio bat, oraintsu eskolatutako sei ikasleren curriculum-sarbidea errazteko, Tuterako hiriko Eskolatze Batzordearen aktetan jasotzen den bezala.

Ikasle horiek premia bereziak dituzte beste kultur jatorri bat edukitzeagatik, hezkuntza sisteman berandu sartzeagatik, gaztelaniaz ez jakiteagatik eta desabantaila soziokulturala pairatzeagatik.

Hezkuntza Departamentuak zergatik eman dio ezezkoa Tuterako “Valle del Ebro” Bigarren Hezkuntzako Institutuko irakasle baten eskola ordu kopurua handitzeari, zeina ikastetxeak eskatu baitzuen oraintsu eskolatutako sei ikasleren curriculum-sarbidea errazteko?

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, Gazte Bermearen Funtseko laguntzei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Gazte Bermearen Funtseko laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Ikusita hor dagoela Gazte Bermearen Funtsa –Europako ekimen bat, beren ikasketak bukatu ostean langabezian dauden gazteei lan-merkatu-rako sarbidea erraztea bilatzen duena–, eta ikusita Nafarroan gazteen langabezia murrizteko premia dagoela:

Nafarroak zenbat diru jasotzen du Gazte Bermearen Funtseko laguntzak aplikatzeko? Nola inbertitu da diru hori?

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren neurriei buruzkoa, ETAREN biktimen memoria erreparatu, haien duintasuna berreskuratu eta justizia egitekoak.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren neurriei buruzkoa, ETAREN biktimen memoria erreparatu, haien duintasuna berreskuratu eta justizia egitekoak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Zure departamentuak zer neurri zehatz hartu ditu edo hartuko ditu ETAREN biktimen memoria erreparatzeko, haien duintasuna berreskuratzeko eta justizia egiteko, zure agerraldian adierazi zenuen bezala? Egingen al du erreparazio- eta oroitzapen-ekitaldirik ETA banda terroristako biktimekin soilik?

Iruñean, 2015eko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroako Ospitalegunean endoskopiatarako gelak irekitzeari buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ospitalegunean endoskopiatarako gelak irekitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Begoña Ganuza Bernaolak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Nafarroako Ospitaleguneko pabiloiko endoskopia-gelak ireki gabe daudela egiaztatu dugu, horiek irailean irekitzea aurreikusi bazen ere.

Noiz irekiko dira?

Iruñean, 2015eko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, Ogasun Ministerioaren ordainketari buruzkoa, C hepatitisaren aurkako tratamendurakoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, Ogasun Ministerioaren ordainketari buruzkoa, C hepatitisaren aurkako tratamendurakoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Begoña Ganuza Bernaolak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Ogasun Ministerioak ordaindu al ditu C hepatitisaren aurkako tratamendurako jada adostutako 14 milioi euroak?

Iruñean, 2015eko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, Castejongo “Dos de Mayo” ikastetxe publikoaren azpiegitura berriak egiteko aurreikusitako epeei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Castejongo “Dos de Mayo” ikastetxe publikoaren azpiegitura berriak egiteko aurreikusitako epeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Zer epe aurreikusten dira Castejongo “2 de Mayo” HLHIPko azpiegitura berriak egiteko? Ziklo osorako eraikiko al dira?

Iruñean, 2015eko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Nafarroako enpresen lehiakortasunari buruzkoa, sozietateen zerga dela-eta.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako enpresen lehiakortasunari buruzkoa, sozietateen zerga dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu taldeari atxikitako Ainhoa Unzu Gáratek, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Irailaren 15eko agerraldian, Garapen Ekonomikorako kontseilariak adierazi zuen enpresetatik gertu egoteko konpromisoa daukala, eta hartara saiatuko dela enpresen lehiakortasunari laguntzen ahal dion oro errazten eta, aldi berean, kalitatezko enplegua sortzeko eta sendotzeko lan egiten.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

1. Nafarroako enpresa lehiakorragoa al da sozietateen gaineko zerga %25etik % 28ra igotzen bazaio?

2. Nola lortzen da Nafarroako enpresa lehiakorragoa izatea sozietateen gaineko zerga %25etik % 28ra igotzen bazaio?

Iruñean, 2015eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

Galdera, autismoaren arloko esku-hartze terapeutiko handiagoaren beharrari buruzkoa, hurrei eta nerabeei dagokienez.

MARÍA VICTORIA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, autismoaren arloko esku-hartze terapeutiko handiagoaren beharrari buruzkoa, hurrei eta nerabeei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasuneko kontseilariaren ustez, berriazko esku-hartze terapeutiko handiagoa egin behar al da hurren eta nerabeen autismoaren kasuan?

Baiezkoan, Osasun Departamentuak zer jarduketara eginen ditu beharizan horiei erantzuteko?

Iruñean, 2015eko urriaren 22an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, erradioterapiako tratamendua jasotzen duten Erriberako gaixoen ordutegi-banaketari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, erradioterapiako tratamendua jasotzen duten Erriberako gaixoen ordutegi-banaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion.

Zenbait gaixo Nafarroako Erriberatik Nafarroako Ospitalegunera etortzen dira beren kimioterapia eta erradioterapia tratamenduak hartzera. Goizko eta arratsaldeko txandetan egiten dituzte joan-etorriak; horietako askok, autobusez.

Arratsaldeko txandak egokiagoak dira zenbait tratamendutarako eta zenbait gaixoren kasuan; hori dela-eta, gaixo horietako zenbaitek azaldu

digun egoera zehatza ikusita, honako galdera hauek aurkezten ditugu, idatziz erantzuteko:

Erradioterapia-tratamendua behar duten Erriberako zenbait gaixok arratsaldeko txanda eskatu dute, eta ez da eskaera hori aintzat hartu. Zergatik?

Osasun Departamentuak ba al du inolako neurririk hartzeko asmorik, Erriberako gaixo horien eskaerari baiezko erantzuna emateko?

Corellan, 2015eko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Osasun Mentaleko Erizaintzako espezialitateari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Osasun Mentaleko Erizaintzako espezialitateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

ANESM-Osasun mentaleko erizaintzako elkarte nazionalak sinadura-bilketa masibo bat bultzatu du estatuan, erreibindikazio oso zehatz bat egiteko: osasun mentaleko erizaintzaren espezialitatea-

ren aitortpena. Bere idazkian, elkarteak argudiatzen du Nafarroako Foru Komunitatean orain dela bost urtetik hasita inbertsio bat egiten ari dela osasun mentalean espezialista diren erizainak prestatzeko; gero, ordea, osasun mentaleko zerbitzuek ez dituzte erizain horiek kontratatzen, eta, horrek haien ustez, kaltetu egiten du gaixo mentalentzako eta haien familientzako laguntzaren kalitatea; izan ere, espezialistak ez diren erizainek artatu ohi dituzte, oro har.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

1. Nafarroako Gobernuak egin al du inbertsiorik erizain horiek osasun mentalaren espezialitatean prestatzeko? Baiezkoan, inbertsio horren zenbatekoa eskatzen dugu, urtez urte xehakatu.

2. Osasun Departamentuak zer irizpide darabiltza osasun mentaleko zerbitzuetan erizainak kontratatzeko?

3. Espezialitate horretako profesionalak kontratatzeko berariazko deialdirik ba al dago?

4. Ezezkoan, departamentuak ba al du asmorik gisa horretako deialdirik egiteko?

Iruñean, 2015eko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jasok

Galdera, Nafarroan jarduten duten segurtasun indar ezberdinek azken 20 urteotan eginiko atxiloketei buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan jarduten duten segurtasun indar ezberdinek azken 20 urteotan eginiko atxiloketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Iñaki Iriarte Lópezek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

1. Nafarroan jarduten duten segurtasun indarretako bakoitzak zenbat atxiloketa egin ditu azken 20 urteotan? Datuak urtez urte sailkaturik jaso nahi ditut.

2. Segurtasun kide bakoitzak atxilotutako pertsonen leporatu zaizkien delituen sailkapena jakin nahi dut. Horietako zenbat izan dira kondenatuak?

Iruñean, 2015eko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, Euroerregioan sartzearen bidez Nafarroako Foru Komunitatearen, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Akitaniaren arteko lankidetzaren berreskuratzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Euroerregioan sartzearen bidez Nafarroako Foru Komunitatearen, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Akitaniaren arteko lankidetzaren berreskuratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Euroerregioan sartzearen bidez Nafarroako Foru Komunitatearen, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Akitaniaren arteko lankidetzaren berreskuratze delata, honako hau jakin nahi dut:

- Bat: Euroerregioan egiaz sartzeko egin beharreko ekintzen aurreikuspena, egutegi eta guzti.

- Bi: Euroerregioan sartzearen helburu orokorren eta horren bidez irekitzen diren aukeren azalpen bat.

Iruñean, 2015eko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Garesko Eskola Publikoko Lehen Hezkuntzako 5. mailan banatu den gaztelaniazko Zientzia Sozialen liburuari buruzkoa.

AHOZKO GALDERA BIHURTZEA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Alberto Catalán Higuera jaunak eskatu du ahozko galdera bihurtzea berak bere garaian aurkezturiko idatzizko galdera bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik hamabost egun baino gehiago iragan direlako Nafarroako Gobernuak Parlamentura dagokion erantzunik bidali gabe. Galdera zen jakitekoa Hezkuntza Departamentuak ba ote zekien zergatik banatu zaien Garesko Eskola Publikoko Lehen Hezkuntzako 5. mailako gaztelaniazko ikasleei Anaya argitaletxearen EAerako edizioa den liburua Gizarte Zientzien ikasgai, eta zer neurri hartuko dituen horri buruz (9-15/PES-00071).

Kontuan izanda Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194.2 artikulua ezartzen duela galderen idatzizko erantzuna galdera argitaratu eta hurrengo hamabost egunen barruan eman beharko dela, eta Lehendakari honi agintzen diola, aipatu epean Gobernuak erantzunik bidali ez badu, kasuan kasuko batzordearen hurrengo bilkuraren gai zerrendan sartzea, galdegilearen eskariz, eta hori dela Alberto Catalán

Higuera jaunak egindako eskaeran aipatzen den galderaren kasua –galdera erabaki honekin batera eranstean da–,

Lehendakari honek ERABAKI DU:

1. Agintzea Hezkuntza Batzordeak heldu den azaroaren 3an, 9:30ean, egiten duen bileraren gai zerrendan honako galdera hau sartzea, kontseilari eskudunak ahozko erantzuna eman diezaien: "Galdera, jakitekoa Hezkuntza Departamentuak ba ote zekien zergatik banatu zaien Garesko Eskola Publikoko Lehen Hezkuntzako 5. mailako gaztelaniazko ikasleei Anaya argitaletxearen EAerako edizioa den liburua Gizarte Zientzien ikasgai, eta zer neurri hartuko dituen horri buruz".

2. Erabaki hau Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroan Politika Sozialak zertan diren eta horiek hobetzen laguntzeko neurriak aztertzeko eztabaida antolatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroan Politika Sozialak zertan diren eta horiek hobetzen laguntzeko neurriak aztertzeko eztabaida antolatzeko arauak onestea. Honakoak dira:

“1. Eztabaida hasiko da Osoko Bilkura monografikoa proposatu duen parlamentu-taldearen eledunaren mintzaldiarekin, gehienez ere hoge minutu iraunen duena.

Ondoren, eskatzen duten parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarten eledunak mintzatuko dira, eta denbora-tarte bera izanen dute. Mintzaldien hurrenkera kideen kopuruari begira ezarriko da, gehien dituztenetik hasi eta gutxien dituztenekin bukatzeko.

2. Aurreko txanda bukatuta, Nafarroako Gobernu kide bat mintzatzen ahalko da, eztabaidagai diren gaien inguruko bere jarrera azaltze aldera, aurreko arauan ezarritako iraupen berarekin.

3. Eztabaida bukatuta, bilkura ordubetez etenen da, eta Mahaiari erabaki proposamenak aurkezteko epe bat irekiko da. Parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak gehienez ere bost erabaki proposamen aurkezten ahalko

ditu, eztabaidagaiarekin zuzeneko zerikusia izanen dutenak.

Proposamenak bilkura eten eta hamabost minutuko epean aurkeztu beharko dira. Jarraian, ondoko hamabost minutuetan, proposamenak onartuko dira eta parlamentu-taldeen edo foru parlamentarien elkarten eledunei helaraziko zaizkie, zeinek hogeita hamar minutu izanen baitituzte proposamenak aztertzeko.

4. Bilkura berriro hasten denean, onarturiko proposamenak batera defendatuko dira, gehienez ere hamar minutuz, 1. arauan ezarritako eztabaida-hurrenkerari jarraituz, eta eledunek haien iritzia emanen dute, halaber, gainontzeko parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarteek aurkezturikoen inguruan.

5. Proposamenen eztabaida amaiturik, aurkezen-hurrenkerari jarraituz bozkatuko dira. Parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak egindako proposamenak batera bozkatuko dira. Halere, edozein eledunek hala eskaturik, aparte bozkatzen ahalko dira”

2. Agintzea arau horiek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

